

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Txagostarrek etxera nahi dute baina han kaserna dago

Londresko auzitegiek azkenean erabaki dute 1965 arte britainiarren kolonia izandako Txagos artxipelagoko biztanleek etxera itzultzeko eskubidea daukatela. Egunen batean lortzen badute herriratzea, umetan kopra palmondoz betetako uhartea militarrez, hormigoiz eta atzeritarrez beteta aurkituko dute.



TXAGOS ARTXIPELAGOA Ozeano Indikoaren erdian dago galduta. Mapan aurkitzekotan, ipini atzamarra Indianen beheko erpinean eta hortik 1.000 milia edo 1.600 kilometro jo hegoaldera. Edo jarri Afrikan Kenyako kostaldean eta hortik ekialdera zuzen 3.000 kilometroz nabigatu. Itsaso zabalaren erdian barreiatuta dauden 55 uharte txikik osatzen dute Txagos artxipelagoa. Hiru uhartetan baizik ez dira bizi izan gizakiak, eta horietan Diego García da irla nagusia.

XVI. mendean Vasco de Gama portugaldarrak aurkitu zituen lurrok, ordura arte gizakiek ukitu gabeak. Beranduago frantsesek berenganatu zituzten, Maurizio izeneko koloniaren barruan ipiniz. Gero 1810ean Britainia Handiak kendu zizkien frantsesei, eta orduan hasi zen Diego García, Solomon Island eta Pero Banho uharteen benetako kolonizazioa, ordura arte esklabo bakan batzuk ez zituzten-eta ekarriak. Gaurko txagostarrak Madagaskar, Mozambike, Maurizio eta India hegoaldeko iritsitako nekazarien askak dira.

150 urteren buruan txagostarrak 3.000 izatera iritsi ziren, eta arrantzan aritzeaz gain nagusiki kopra zen haien bizimoduaren funtsa, oliotarako esportatzen zuten kokoa. Baina 1971n Txagosetako jende guztiak kanporatu egin zituzten britainiarrek, bertan amerikarrek eraiki zezaten Ozeano Indikoan

daukaten base handia. Txagostarrek ekin zioten etxera itzultzeko eskubidea auzitegietan aldarrikatzeko kalbariobide luzeari eta mila gorabeheraren ondoren apiril honetan eman die arrazoi Londresko Lorden Ganbarak.

Garaipen hau baino lehen, 2006ko martxoan, zienta bat txagostar inguruk izan zuen sorteria bisitatzeko aukera. Orduan *Minority Rights Group* buletinak eta *The Guardian* egunkari ingelesak eman zuten albistea. 2000.ean irabazi zuten lehenbizikoz osteria herriratzeko eskubidea, baina Londresko gobernuak apelazio berriak asmatzen zituen. Hala ere, ehun txagostarrak egun bete pasa ahal izan zuten Diego García uhartean, birrindutako etxe eta soroak ikusi, arbasoen hilobiak ikusi eta penatuta itzultzeko Maurizioara.

Bidaia-eriotako askok umetan utzitako uharte txikian deus gutxi zegoen zutik lehen zegoenetik. AEBetako armadak Diego García daukan base erraldoiak aldatu du dena, aireportuaren pista, eraikin berri, militar eta hauen zerbitzuko ari diren 3.000 langile kanpotarrekin.

Diego Garcíaen argazkiak erraz aurki daitezke, baina Londresko gobernuak antza ez zuen nahi herritarrek bertatik bertara hura ikuskatzerik. Txagostarrak joan ez zitezen, aitzakiarik harrigarrienak erabili zituen Tony Blairren gobernuak. 2000.ean, turistentzako leku arriskutsua zela, eltxo arrisku-

tsu asko zegoelako. 2004an berriz oso gutxitan erabili izan den kolonialismo garaiko lege bitxi bat usatu zuen, epailearen erabakiaren gainetik gobernuari erabakitzeko baimena ematen ziona.

Azkenik nola edo hala egin zuten herrimenez betetako txangoa, eta lehen urrats hura orain osatu da legez bederen asaba zaharren etxera itzultzeko eskubidea aitortu zaienean.

Bahitu ondoren britainiar nonbratu

2006ko txango labor haren osteko kronika *The Guardian* eta *Le Monde* egunkarientzako Sarah Tisseyre-k egin zuen. Maurizioko Port Louis hiri inguruko txabolategi batean bizi den Lisette Talate amonarekin mintzatu zen, adibidez. Honek gogoan ditu 1971ko gertakizunak: "Egun batetik bestera gizon bat azaldu zen esanez Diego saldu zutela eta guk alde egin beharra geneukala". Baina beren herio zigorra 1961ean sinatu zuten ingelesek.

Gerra Hotza beroenean zegoen. Sobietarrek Ozeano Indikoan indar hartuko zuten beldurra zegoen, eta Washingtonek eta Londresek tratua egin zuten: britainiarrek lurra jarriko zuten base militar handi bat egiteko eta ordainetan amerikanoek Polaris misilak prezio berezian salduko zizkieten.

Laster, 1965ean, Maurizio uharteei independentzia eman zieten ingelesek, baina Txagos metropoliaren zuzeneko



Goiko argazkietan, batek erakusten du Txagos uharteetako batean abandonatutako etxea eta Interneten Web Design Cap Town sinatzen duen batek ipini du, paraje hartara egindako itsasaldi bateko orogarrien artean. Bestean Diego García AEBetako armadak daukan base militarra ikusten da, uhartearen zati handi bat betetzen duena. Lerroon ondoan txagostar erbesterratu bat etxera itzultzeko eskubidearen aldeko protestan.

agintepan geratu zen. Amerikanoekin hurrengo urtean sinatu zuten tratua, Diego García 50 urterako alokatuz, 20 gehiagoko epe gehigarriaz.

Bertako biztanleek deus ez zekiten eta kopratan segitzen zuten lanean, ehun urte lehenago bezalatsu. Ingelesek nazioartean propaganda kanpaina hasi zuten, txagostarrak urtero uzta garaian ekartzen zituzten langile moduan aurkeztuz. Diplomazia britainiarra ondoko urteetan saiatu zen Txagos Nazio Batuen Erakundearen agendatik kanpo edukitzen.

Herritar asko oharkabean kanporatu zituzten. Gaur txagostarren liderra den Olivier Bancoult-ek, adibidez, zortzi urte zituen 1968an bere familia-ekin Mauriziora joan zenean medikuntza, bere arreba gaixo zegoelako. Ez

zieten itzultzen utzi. “Arreba bi hilabeteren buruan hil zen eta Pero Banhosera bueltatu nahi genuela esandakoa, ezinezkoa zela erantzun ziguten”.

Beste asko era berdintsuan aurkitu ziren etxeratu ezinik, Seychelleetara edo Mauriziora edozein enkargu edo ospakizunetara joandakoa. Alde egin ez zuten gainerako txagostarrak, 1971tik 1973a bitartean kanporatu zituzten.

Diego García base militarrean amerikarrek milioika dolar asko gastatu dituzte. Esan daiteke gaur Diego García yankien itsasontzi erraldoi bat dela. Bertatik antolatu dira 1991ko Golkoko Lehen Gerrako bonbaketetarako hegaldiak, berdin 2001etik aurrera Afganistan eraso zutenak, eta geroago Irakeko konkistan erabilitako asko.

Hiru mila langile zibil ari dira gaur base horretan, gehienak Mauriziotik eta Filipinetatik ekarritakoak. Bitartean, txagostar gehienak Maurizioko txabolategi txiroenetan bizi dira, talde batzuk Seychelleetan eta banaka batzuk Londresen. Maurizion daudenetako asko analfabetoak dira, langabezian daude ezin egokiturik bizileku berrira. “Hemen gure haurrak –esan dio Lisette Talatek kazetariari– drogarekin eta kriminalitatearekin nahastu dira. Ikusi 37 urteko nire seme hori, langabeziagatik edanari eman dio”.

Londresen azken aldian txagostarrei britainiar nazionalitatea eskaini die. 2000.etik gaurdaino milako batek onartu dute pasaporte britainiarra, 8.000 herritarrek osatzen duten talde-tik. Tartean Bancoult liderrak. Aldiz, beste batzuk irtenbide horren kontra daude. Port Louisen diharduen Txagostarren Ongizatearen aldeko Komiteak adibidez uste du naziotasun britainiarra onartzeak historiari uko egitea dakarrela. “Txagostarrak Maurizioko herritar dira, eta etxera itzuli nahi badute Maurizioko gobernuari laga behar diote bere subiranotasuna berreskuratzeko negoziatzen”.

1980tik Mauriziok Txagos artxipelagoa bere zati dela aldarrikatzen du NBEan. Eta amerikarren base militarra? Dagoeneko inor ez da ausartzen Diego García itxuraldatu duen obra erraldoia bertan behera uzteko eskatzen. Herritarrak militarren ondoan bizi daitezkeela diote, eta behar izanez gero haiantzako lan egin ere bai. ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



**Produkturik
onenak,
Zinkunegi Optikan**

Aukerarik
zabalena
beturreko graduatu,
ukipen-lente,
audifono eta
eguzkitako
beturrekoetan.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Herranri kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624

K A L I T A T E A